



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2008-02-15**

VIURTEA 1.362.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Balorazio positiboa egin dute greba orokorrek izan duen erantzunarekin

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** Bi eskualdeetan eragin zabala izan zuen ezker abertzaleak eginiko deialdiak

**MOZIOAK** EAE-ANVren mozioak eztabaidatu eta bozkatu ziren ezohiko batzarretan hainbat herritan 4-5



Tolosan 700 lagun inguru bildu ziren atzo eginiko manifestazioan. EZEIZA

## Bi asteburu barru amaituko da Nafar Jokoen ligaxka

**LEITZA** Datorren asteburuan jakinen dute zeintzu sailkatu diren finalerdiak jokatzeko 7

**Dar-Dar** ekoiztetxearen 'Gaurko menua' antzezlan gaur Leidor aretoan

**Leire Olaberria** Munduko Kopako azken proban lehiatuko da asteburuan

**TOLOSA** 20:30ean hasiko da Pako Montes zuzendariaren lana 2

**IKAZTEGIETA** Olinpiar Jokotarako postua finkatu nahi du txirrundulariak 3

**AMAIA ZUBIRIA**  
ABESLARIA

«Jendea oso gertu izatea gustatzen zait kontzertuetan»

**VILLABONA** Amaia Zubiriak 'Nabil' bere azken lana aurkeztuko du gaur Gurea aretoan, 22:30etik aurrera 6



HITZA

ILEAINDEGIA

Gaur ostirala 19:30ean  
**INAUGURAZIOA**

Eguerdietan ZABALIK

**LOS LOS pe LOS**

Erniobera 8, behea • Villabona • Tel.: 943 696 845

**Laburrak****Haur errusiarrak udan hona ekartzeko aukera**

**TOLOSA** ■ Bikarte errusiarrak umeen harrerako elkarte ongileak 2008ko udako kanpainari ekin dio. Aurtengo udan, gehienbat umezurtegietan bizi diren zenbait haur errusiarri harrera emango lieketen familien bila dabil. Informazio gehiago nahi izanez gero, 605709022 eta 687860395 telefono zenbakietara deituta eskura daiteke.

**Zazpi gazteei babesa emateko manifestazioa**

**IBARRA** ■ Ibarraldeko zazpi gazte kartzelara joateko arriskuan daudelako salatzen, eskualdeko manifestazioa egingo da gaur, 20:00etan, Ibarrako plazatik abiatuta. 2002. urtean Guardia Zibilak atxilotu zituen kale borroka ekin-tzak egotzita. Lau hilabete esperean igaro ondoren eta fiskalarekin akordio batera iritsi ostean fidantza ordaindu eta aske geratu ziren. Orain, fiskalak erabakia aldatu eta espetxera joateko arriskuan daudela salatu dute.

**Nerabeei buruzko hitzaldia astelehenean, Orixen**

**TOLOSA** ■ Astelehenean, 18:30ean hitzaldia eskainiko dute Orix Institutuan. Saioaren izenburua *Gurasoen jarrera, seme-alaba nerabeei dituzten aldatetako* izango da. Aipatutako hitzaldia, gazteleraz egingo da eta DBHko 1.º, 2.º eta 3.º mailako ikasleek gurasoei zuzenduta dago. Hizlaria Hilario Garrudo psikologoa izango da.

**Iraupen eskiko ikastaroa, Alpino Uzturren eskutik**

**TOLOSA** ■ Alpino Uzturre Elkarteak iraupen eskiko ikastaroa antolatuko du 1994, 1995, 1996 eta 1997 urteetan jaiotako gaztekoentzat. Ikastaroa bi asteburutan garatuko da, otsailaren 23-24an, eta Martxoaren 1-2an. Somport-en (Candanchu ondoan) izango da. Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko 685 776 504 (Xanti) telefono zenbakira deitu behar da.

**Inauterietako balantzea egiteko bilera, gaur**

**TOLOSA** ■ Jai batzordeak urtero bezala, Inauterietako balantzea egiteko bilera antolatuko du gaurko. Batzarra gaur 19:00etan izango da, Kultur Etxean.

**Karroza eta konpartsen lehiaketarako dietak**

**TOLOSA** ■ Karroza eta konpartsen lehiaketaren dietak jasotzeko eskaerak egiteko epea bihar amaituko da. Honetarako, datu orria Aranburu jauregian utzi behar da. Orriak, Aranburu edo Udalaren webgunean eskura daitezke.

# Komedia gazi-gozo bat ikusgai gaur, Leidorren



**Gaurko menua antzezlano bi protagonistak, Ane Gabarain eta Lierni Fresnedo, emanaldian.** HITZA



**Tolosa** ■ Ane Gabarain eta Lierni Fresnedo dira Dar-Dar-en 'Gaurko menua' antzezlano bi protagonistak.

**ERREDAKZIOA**

Dar-Dar ekoiztetxearen eskutik, *Gaurko menua* antzezlana izango da ikusgai, gaur, 20:30ean, Leidor antzokian. Pako Monteszen zuzendaritzapean ariko dira, Ane Gabarain eta Lierni Fresnedo aktoreak. Publikoak gozatuko duen kutsu

sozialeko tragikomedia bat da lan hau.

Antzezlana ikustera joan nahi duenak Servikutxan, Telekutxan eta [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) webgunean, 10 euroren truke. Honez, gain, emanaldiaren aurretik, antzokiko leihatilan bertan ere erosi ahal izango dira.

**Bi emakumeren trajikomedia**

Antzezlana honetan, sukalde koi-petsu batean, Pepi eta Txelo protagonistek, irrifar eta negar artean bere atsekabe eta itxaropen ezak elkarbanatuko dituzte. Lehiaketa

bat irabazteko aukera beraien salbazio taula eta aldi berean amildegirako oso bide bizkor batean bihurtzen da. Hainbeste urtean gaitzeak dakarren frustrazio eta amoriarekin ekin diote itzulera posiblerik ez duen bidai bati bi emakumeok.

Antzezlana interesgarria da, testuak berak duen kalitateagatik, nahiz, edukiarengatik. Izan ere, Marilia Samperrek sortutako lan honetan, emakumearen esplorazio laborala jorratzen da. Hau guztia, komedia gazi-gozo baten kutsuaz gauzaturata.

# 'Ni ez naiz txotxolo' haurrentzako antzerkia izango da bihar

**Tolosa** ■ Treatorat-ek bere emanaldi berriena eskainiko du bihar arratsaldean, Leidor antzokian.

**ERREDAKZIOA**

Gaur iluntzean helduei zuzendutako antzerkia ikusi ahal izango da Leidorren, eta bihar, haurren munduan hain hedatua dagoen *Ni ez naiz txotxolo* lana eskainiko dute 17:00etatik aurrera, Teatoratekoek.

Hau da POK antzerki taldearekin elkarlanean egin duten azken ekoizpena. Oraingo honetan, fantasia eta bidaien bidetik jarraituz, gaur egungo gizartearen eta haurren munduan hain hedatua dagoen bakardadeaz mintzatzen dira. Hala ere, ez da aldarrikapen, erreklamazio edo kexa egingez. Baizik eta, gaztetxoek erraz ikusi eta ulertuko duten egunerokotasunaren



**Emanaldiko umeetako bat.** HITZA

bidea jorratuz. Hau da, beraien munduan jarri eta kontakizuna beraien mundutik erakutsiz. Hala, haurrek beraien burua ikusiko duten bezala, guraso batek baina gahiagok beraiena ere ikusiko dute.

Aitzpea Goenagak idatzitako eta Edi Naudok zuzendutako obra honetan, amets ez ere hitz egin nahi dute, beraien desio sutsuez, edota senti dezaketenen maitasun ezkuta ezinaz. Jolas baten modura, gaztetxoaren istorio batzuk erakutsiko ditu: zakurra amestearena, anaia edo arreba txikien desegoki-

tasuna, edo normala izatearen nahiarena, edo... Hala ere, istorio arrunt hauek aukeratzeko didaktiko izan nahi, baizik eta neska-mutilen ispilu, ispilu jolastaria. Haiek identifikatzeko modukoa eta aise ulertuko duten irudi bat itzuliko diena. Honenbestez, balore batzuk azaldu eta adieraziko dituen.

**Baloreen hezkuntza**

Teatorat-en ustez baloreen hezkuntza gaur egungo gizartearen ezinbestekoa da, eta antzerkia hauek zabaltzeko oso tresna baliagarria eta indartsua da. Horregatik, ezin bestekotzat jo dute ardura hau beraien hartzea. Bestalde, azaltzen dute, «eskarmentuak erakutsi digu jarraitu beharreko bidea: umorea, samurtasuna, xelebrekeria, fraskotasuna, haurren partaidetza, zorakeria, jolasa, dantza, musika, eta batez ere, entretenu eta une dibertigarri bat pasatzeko tenorea.

# Ilegalizazioa eta 'Egunkaria'

**» Kale-kantoitik**

**Joxemi Saizar**

**B**errehun mila bototik gora dituen euskal alderdi politiko bat ilegalizatu, bere buruzagi guztiak eta beste dozenaka kide atxilotu eta espetxeratu ditu azken urte honetan Espainiako Gobernu sozialistak. Azken hauteskundeetan gertatu bezala, datorren hilabetean egingo direnatan parte hartu ahal izateko oztopo lasterketa gaituriko beharko du. Ideia horiek ordezkaritza gabe geldituko dira erakunde demokratikoetan. Salbuespen egoerako garaia daturkit burura, Garcia Damborenea sozialistak Tolosa zorriz garbitu zuela esan zueneko garaia.

Gaiuz aldatuz, baina atxiloteketa jarraituz, datorren asteazkenean *Egunkaria*-ren itxieraren eta arduradun nagusien atxiloteten bost urte beteko dira. Zortzi hilabete beranduago euskalgintzako beste kide batzuk atxilotu zituzten. Euskararen alde aritzea terrorismoarekin lotu nahi dute Espainiako agintariak. Orduan Euskal Herriak eman zien erantzuna erdugarrira izan zen. Oraindik ez dago garbi zer gertatuko den auzipetutako euskaltzale horiek. Datorren asteazken arratsaldean hori salatzen kontzentrazio isilak egingo dira eskualdeko herri askotan. Ea duela bost urteko erantzuna errepikatzen den eta euskarak elkartzen gaituela frogatzen den.

# Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketa hasi da dagoeneko

**ERREDAKZIOA**

Aurreko asteburuan Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketa hasi ziren. Lehensaioen ostean, infantiletan Orixeko (Tolosa) Salbarreri eta Uzturpeko (Ibarr) Romero lehen postuan dira partida guztiak irabazita. Alebinetan, Pello Errotako (Asteasu) Muguruzak bere partidaguztiak irabazi zituen. Benjaminetan, Hirukideko (Tolosa) Aretxaga da denak irabazi zuten bakarra.

Hurrengo saioa etzi izango da, 11:00etatik aurrera Tolosako Kultur Etxean.

# Zuhaitzaren Azoka Berezia izango da bihar, Triangulon

**Tolosa** » 15 mintegi izango dira denera; Usabalen eta Bidebieta auzoan zuhaitzak landatuko dituzte, eta jinkana ere egingo dute.



Pasa den urteko Zuhaitzaren Azoka Bereziko une bat, Triangulon. N. URIBIZU

## ERREDAKZIOA

Tolosan larunbatero Zerkausian egiten den tradizio handiko azokari, urtean zehar egiten diren azoka bereziak batu behar zaizkio. Urteko lehen azoka berezia bihar izango da, Zuhaitzaren Egunaren harira antolatutako Zuhaitzaren Azoka Berezia, hain zuzen ere.

Hala, Triangulo plaza zuhaitz, zuhaixka eta bestelako landarez beteko zaigu. Urteroko mintegiek ez dute hutsik egingo egun honetan. Eta mintegi berriak ere izango dira hamabigarren aldiz egiten den egun honetan jendearen nahia asetzeko prest.

## Era guztietako produktak

Guztira, 15 mintegi izango dira azokan eta era guztietako produktak ekarriko dituzte: fruta arbolak, baso landareak, landare usaingarriak...

Aipamen berezia merezi dute larunbatero Atadi kalean egoten diren mintegiek: Agirretxe mintegia (Donostia), Arakama mintegia (Zegama), Dorronoro mintegia (Ataun), Garitaonandia mintegia (Zaldibar), Lasa mintegia (Albiztur), Mendia mintegia (Beasain) eta Urkizu mintegia (Anoeta). Bihar ere hauek beraien betiko lekua utzi eta Trianguloa plazan egongo dira azoka berezian parte hartuz.

Antolatzaileek azaldu bezala, «egun hau landare eta zuhaitz mota ugari ikusi eta erosteko proposa izateaz gain, haiei buruzko

zehaztasunak galdetzeko ere egokia da. Izan ere, gustura erantzuten diete mintegietako arduradunek bertaratuakoen kezka eta galderei».

## Zuhaitzen landaketak

Trianguloko azoka bereziaz gain, izango dira herrian Zuhaitzaren Egunaekin loturiko ekimen gehiago ere. Tolosako Ingurumen Eskolak hainbat landaketa koordinatuko ditu, azken 13 urtetan egin duen bezala.

Landaketak herriko bi gunetan egingo dituzte: Bidebieta auzoan hesi akustikoa eta Usabal kiroldegiaren inguruetan. Lehenbizikotan, 100 Urki aldatuko dira, gertu dagoen N-1 errepideak eragiten duen kutsadura akustikoa gutxituko duen hesia bukatzeko. Bigarrenean, 70 gerezondo japoniar landatuko dira, horrela aurreko urteetan hasitako landaketekin bu-

katuz. 10:00etatik aurrera ekingo diete landaketei. Eskola Agenda 21 proiektuan sartuta dauden Tolosako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek hartuko dute parte landaketa hauetan. Gainera, zuhaitz eta landareen inguruko jolasak eta frogak gainditu beharko dituzte ikasleek beraien antolatutako jinkanan, 10:00etatik 12:30ak arte. Antolatzailerik bertan parte hartzera animatzen dituzte gazte guztiak.

## Zabalarreta parkea dotoretuz

Tamaina handiko zuhaitzak ere aldatuko dituzte Zabalarretako parkean, eta landaketa honetan udal ordezkariak hartuko dute parte. Parke honetan garrantzi handiko zuhaitzak daude: zedroak, indiar gaztainondoak... Horien babesean haziko dira orain landatuko dituztenak eta parkea dotoretzen lagunduko dute.

# Leire Olaberria Munduko Kopako azken proban lehiatzeko prest

**Ikaztegieta** » Gaur eta bihar izango ditu probak; bere helburua, Olinpiar Jokoetarako «postua finkatzea» izango da.



Leire Olaberria, Espainiakoa. HITZA

## ERREDAKZIOA

Leire Olaberria ikaztegiatarak Munduko Kopako laugarren eta azken proban hartuko du parte asteburuan. Copenhaguetik gertu egon da pista txirrindularia belodromoan entrenatzen, Cespa-Euskadi taldearekin.

Gaur bertan hasiko da probekin

eta astelehenean itzuliko da Euskal Herrira. Gaur, 11:30ean norbanako jazarpen proba sailkapen saioa izango du, eta finala,

18:40ean izango da. Bihar, berriz, 12:40ean puntuazio sailkapen saioa izango du, eta finala, 16:15ean.

Oraingoan ez du parte hartuko Scratch-ean, Puntuazio proban kontzentratu nahi dituelako indar eta ahalegin guztiak, rankinean bere postua finkatzeko. Momentuan, eta bi txapelketa puntuagarri geratzen direla kontuan hartuta (Danimarkako Munduko Kopa eta Munduko Txapelketa gero), Olaberriak Olinpiar Jokoetarako beharrezko duen postua eskuratu-ta dauka. Bere helburua, «postu hori finkatzea» izango da.

# TXOTX

## Urbartarte

Ergoiena auzoa  
Tel.: 943 180 119 **Ataun**

## Laja

Arkolla auzoa, 33 (www.lajaerretegia.com)  
Tel.: 943 646 309 (info@lajaerretegia.com) **Hondarribi**

## Lindurrenborda

Nabaz auzoa  
Tel.: 948 637 212 **Lesaka**

## Ola

Meaka auzoa, 102  
Tel.: 943 623 130 **Irun**

## Aduriz

Aranedef bidea, 28. Iturriotz auzoa  
Tel.: 943 494 353 **Oiartzun**

## Egi Luze

Zamalbide auzoa  
Tel.: 943 523-905 **Errenteria**

## Txopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)  
Tel.: 559 546 234 **Azkaine**

## Bordatto

Bordatto etxaldea  
Tel.: 559 491 822 **Jatsu**

## Donosti

Zamalbide, 8  
Tel.: 943 526 041 **Errenteria**

## Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)  
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 **Itziar**

## Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)  
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) **Usurbil**

## Begiristain

Iturrioz baserria  
Tel.: 943 652 837 **Ikaztegieta**

## Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)  
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) **Tolosa**

## Sarasola

Bebailara auzoa  
Tel.: 943 690 283 **Asteasu**

## Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)  
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) **Aduna**

## Otazu

Otazu baserria  
Tel.: 943 670 044 **Leaburu**

## Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35  
Tel.: 660 654 317 **Tolosa**

## Erreka

Erreka auzoa  
Tel.: 948 510 625 **Leitza**

## Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria  
Tel.: 943 556 981 **Urnieta**

## Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 **Hernani**

## Otsua-enea

Osiñaga auzoa  
Tel.: 943 556 894 **Hernani**

## Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com  
Tel.: 943 550 328 **Hernani**

## Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalernia.org  
Tel.: 943 556 637 **Astigarraga**

## Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)  
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 **Astigarraga**

## Gartziategi

Gartziategi baserria www.gartziategi.com  
Tel.: 943 469 674 **Astigarraga**

## Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidrerriakelenea.com  
Tel.: 943 333 333 info@sidrerriakelenea.com **Astigarraga**

## Gurutzea

Oialume bidea 63 (sarrerera Ergobia auzotik)  
Tel.: 943 552 242 **Astigarraga**



Ibarren 100 lagun inguru irten ziren kalera 12:00etan eta herria zehar manifestazioa egin zuten. Villabonan Aiztondo baltarrak herritarrek elkaritu ziren eguerdian eta arratsaldean, Leiztan bezala ez.

# «SALBUESPEN EGOERA!»

**Politika** Greba orokorrak eta mobilizazioek eskualdeetan atzo izandako erantzunarekin «oso gustura» agertu zen LAB sindikatua.

**ASERIMAZ** Tolosaldean eta Leitzaldean, Euskal Herri guztian bezala, ezker abertzaleak greba orokorra deitu zuen atzoan. Kaleetan eragin zabal izan zuen grebak eta dendari gehienek bat egin zuten ezker abertzalearen deialdiarekin. Ibarren kasuan salbidea, herriko dendari guztiak greban aurkitzen ziren atzo goizean. Tolosa, Villabona eta Leizta ere itxura bera zuten. Anonko ezker abertzaleak herritar guztiak zoriondu eta eskertu zituen atzoko egunean

izandako jarraierarengatik, bi dendari, tabernari, konbentzio eta bestelako greba orokorrarekin bat egiteagatik eta baita herritar guztiak mobilizazioetan parte hartzeagatik.

Greba eraberritu nagusia «salbuespen egoerari aurre egitea» izan zen, baina herriko batera hairibat lelo entzun eta ikusi ziren atzokoa kaleetan «Euskal Herriko eskubideen alde, errepresioak eta proiekzio gaurietan aukera demokratikoa; independentzia aurrera; irabazten ari gara...».

### «Oso balorazio positiboa»

LAB sindikatuak balorazio «oso positiboa» egitearekin batera, langile eta herritarrek zoriondu nahiz izan zituen «erantzunagatik, erakutsi duten duintasunagatik eta nola ez, Estanek, PSE-ri eta herriko Euskal Herriari, haiek dituzten morroi zintzotzi, EAJ-PNV, EA, IU eta Aralarri, aurre egiteagatik».

LABek ondorio «argi eta garbi» bat atera zuen greba erantzunagatik: «Espainiar Estatuan, eta bereziki PSE-ek, erabilerazko bat ezker abertzalearekin, eta ETA-ekin ere, arazo funtsuan Euskal Herriaren indarra».


Sindikatu abertzaleak ELA sindikatuaren jarrera gogor salatu zuen greba erantzuneko balorazioa egitean. Baina kritika zorrotza zuzendu bazion ere sindikatuari, beste alde batetik eskerrak eman zitizien ELA-ko hainbat afiliatu, atzoko «deialdiarekin bat egin» zutelako. «ELA-k batzarrak boikotatu ditza, afiliatuak batzarretan ez parte hartzeko agindua eman dizkizute jarraera osoa kribatzea eduki dute greba erantzun aurka. Horrelako eraso baten aurrean eze egiten ez badute, noiz egingo dute? Hauek ere, EAJ-PNV-ki eta beste batzuek daukaten jarrera berbera dute argi eta garbi: urratsak eman behar direnean beaizteraz».

### Greba erantzun batzuetan

LABek jakinazuzen, Tolosaldeko hainbat langile greba orokorrarekin bat egin zuten. Hauen

arteak, Eroski, Cicarsa, Leñi, Tarte, Delta, Komert, Reprocel, Graficas Leizaran, Insalub, Berogasa, Sora, Elka eta Otegi Enkalunza aurkitzen ziren. Lan utzteak edo ezohiko egoerak bizi zituzten langileak, Lanter, Emusi, SAM, Kalpasoro, Araxes, Sorarain, Antalis eta Pasaban aipatu zituen LABek, besteak beste. Beste hainbat langile greba, sindikatuak jakinarazi zuenez, langileak kalera irten ziren, nahiz eta langile greba ez geratu, Gorostidi eta Voth-ek 30na langile irten ziren kalera.

Ikastetxeetako dagokionez, Arsoleko eskola laraldi erdiko lan utzia egin zuten bi irakasleek. Leitzako Erleta eskolan, ordu bateko geldialdia egin zuten irakasleak ere



## EAE-ANVren mozioak ezohiko batzarretan

**Politika** Mozioak Leizta, Aitzo, Amezketa, Tolosa, Villabona eta Zizurkielen eztabaidatu zituzten emaitza ezberdinekin.

### A. MAZ

Greba orokorrak gain, ANV-EAEn mozioak ere zeresana eman zuten atzokoa. Ametzetan eta Aitzon, ezohiko batzarretan aurrera atera zen EAEn mozioa. Leiztan bertiz, asteartean bozkatu zuten ezohiko batzarretan. Bertan, EAEn 5 zinegotzik bozkaria onartu zuten mozioari, UPNko 2 zinegotzik ezohiko eta Eusko Alkartzasuneko hiru abstentzioa bozkatu zuten.

bertara ez zela agertuko azaldu zuen eguea irakurteko zuzendakari gog delako» esanaz. Horretaz gain, Oscar Renedo zinegotziak, Jokin Beldarrain alkateak eta ANV-EAEn kritikatua zuten. «ETAren krimenak delonatzeko gai ez diren in-justizia eta legearen eta demokraziaren busek ez direla esatea sarkasmo bat da. Baina aldi beran ezin izan politiko bat da Eadela-ko lehendakariak hauei babesa ematea».

EAEn mozioa 19:00etan hasi ziren eztabaidatzen. Bertan, «Euskal Herriaren aurkako erasoak» hitz egiteaz gain, PSE-ek eta EAJ-ek aipatzen ziren. «EAE indar politikoren suspentsioa erabiltzea, Espainiar estatuak berriro erosten du Euskal Herria. Une hauetan, PSE-ek eta EAJ-ek iruzurra prestatzen ari dira, herri honen eskubideak ukatzen dituzten marroa erformatu nahi dute». EAJ-ko moziok alderdiak aurkeztu zuten, eta ondoren EAEK berria irakurri zuten, baina EAEn solik bozka-

### Villabonan bi mozio aurrera

Villabonako udalaren ezohiko bilkura herenegun egin zen. Bertan 10 zinegotzi bakoik agertu ziren, 6 ANV-EAEn, 4 EAJ-koak, 2 EAJ-koak. Batzarren bi mozio eztabaidatu eta bozkatu ziren, bata EAEK aurkeztu eta bestea EAJ-koak aurkeztu. Lehenik EAEn bozkatu zuten eta 6 zinegotzik bozkaria eman zuten. EAJren hiru ezeko bozkatu zuten eta batak abstentzioa. Moziok aurrera atera zenez eta bertan manifestazio orokordea deialdi agertzen zenez, Villabonako Udalak deituta manifestazioa egingo da bihar 12:00etan. Plazatik irteerako dira Eskubide Demokratiaren alde, Zizurkielatik Erlekoan eta manifestazioa sili izango da.

Bestalde, Zizurkielako ezker abertzaleak EA Jeta EA udal gobernuaren jarrera salatu du, «moziok irakurri bai, baina bozkatzeko aukerarik ez zelako egon». «EAJ-ki eta EAJ-ek zuten beren ikuspegiak eman nahi izan, eta aurreko deialdi bat bezala, udal gobernuak beste moziok bat aurkeztu eta buruzko oaratu zuten, bera herrialde eman ez dien gehiengoz batilatu».

### Tolosan EAEn mozio bozkatu zen solik

Tolosan herenegun egin zen ezohiko batzarra udal txetan, ANV-EAEn moziok eztabaidatu zuten. Alderdiak aurkeztu ziren, baina EAEn solik bozka-

### «Greba eskubidea urratuta»

LABek gogor salatu zuen «Tolosa Udala Haurreskolan gertatua». Euren esanetan, Jokin Beldarrain (EAJ) jantziak, zerbitzu minimoak eskola zikloaren haurzaindegiko langileei-haur eskola iraketa mantentzeko beharrez, irakasleentz zerbitzu minimoak ez beharrezkoak ez direnean. Langileak zerbit-

### Mobilizazioek herri ugartan

Eskualdeko herri ugartan eguerdian eta iluntzean mobilizazioak burutu ziren atzokoa. Ibarren 12:00etan 100 lagun inguru bildu ziren manifestazioan, Tolosan 700 eta Villabonan 350 inguru. Azken horietan Aiztondo baltarrak herritar eta langilek elkartu ziren.

Arratsaldean bertan, Tolosan eskualdeko manifestazioa egin zen eta Villabonan baltarrak, biak 19:00etarako aurrera.

**h** **Gaurko Menua**

Ostirala otsailak 15, 20:30ean  
Tolosako Leidorren

HITZAren harpidunentzat abantailak

antzezlanerako

## 2 sarrera pare

zozketa

**Irabazleak:**

- Lierni Arizeta Andiarrena (Bidegoian)
- Jasone Armendariz Nazabal (Aitzo)

sarrerak leihatilan bertan izango dituzte

**2003. OTSAILAK 20**

**“Eskandalagarri eta guztiz onartezin deritort Aznar jaunaren gobernuak zuen egunkariaren kontra egindako erasoari”**

Jean-Pierre Destrade,  
Frantziako Alderdi Sozialistako diputatu ohiak.

**Egunkaria libre!**

munduan libre bizi ahal izateko **egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

www.egunkaria.info

## Kontzertua

# Amaia Zubiria

**OTSAILAK 15**  
**OSTIRALA • 22:30ean**  
**VILLABONAKO GUREA ANTZOKIAN**

VILLABONAKO UDALA KULTURA BAZTERROA

**Aurrezki 600 €, zinez ongi etortziko zaitzazu eta**

**Kontratahu Zuntz Optikoa.**

10 eguneko erabilera • 1000 orduko erabilera • 1000 orduko erabilera

**eta aurrezki 600 € urtebetean.**

www.comercialzaragoza.com



E **Elkarrizketa**

AMAIA ZUBIRIA &gt; Abeslaria

## «Kontzertuetan jendea oso gertu izatea gustatzen zait»

**Villabona** » Amaia Zubiriak kontzertua emango du gaur Gurea aretoan, 22:30ean hasiko den emanaldian; 'Nabil' izeneko diskoa atera berri du abeslariak.

## IMANOL GARCIA

Disko berria atera berri du Amaia Zubiriak (Zubieta-Usurbil, 1947). *Nabil* izena du eta abesti herrikoiez gain Lurdes Iriondoren eta Estitzuren abesti bana ere abesten ditu. Gaur emango du kontzertua, 22:30ean, Gurea aretoan. Sarrerak 5 euro balio ditu aurretik eta 7 leihatilan.

**Zergati 'Nabil' izena?**

Lehen kantua, Lurdes [Iriondo] eta Xabierrena [Lete], hitz horrekin hasten da. Beraiek lizentzia hori ere onartu bazuten, nik ez naiz gehiago eta onartzen dut ere. Polita iruditzen zait, sonoroa iruditzen zait, kontundentea. Eta egia denez gainera...

**Abesti herrikoiak eta bi kantarien abestiak sartu dituzko diskoan.**

Beste bi horiek ere herrikoiak iruditzen zaizkit. Niretzak klasikoak bihurtu direnak.

**Aukeraketa egiterakoan, zertan oinarritu zara?**

Ez dakit segururik. Bi horiek kenduta, beste guztiak nire errepertorioan daude beste askorekin batera. Aukeraketa bat egin behar zen eta agian lotura bat izango dute denek, baina ez naiz konturatzen zer izan daitekeen, ez bada ixilik gaudela eta kantatzea plazarra dela eta mingarria ere bai, bizitza bera bezala. Hori izan daiteke lotura.

**Lurdes Iriondoren eta Estitzuren kasuan, abeslariak ala kantuak aukeratu dituzte?**

Gezurra dirudi nola ahazten garen gauzetaz. Oso garrantzitsuak izan dira, bai kantuak eta baita ere kantariak berak bere momentuan, batez ere aurretik gentozenentzat. Abestiak eta abeslariak biak izan



HITZA

dira oso enblematikoak, horregatik oso logikoa iruditzen zait, omenalditxo bat bezala, nire xumetasunean. Egun batean ez bada bestean egin behar nuena zen.

**Orain diskoa aurkezten ari zara?**

Ni ez naiz horrelakoetan sartzen. Guk jarraitzen dugu betiko moduan: behar edo nahi gaituenak deitzen gaituzte eta tpa-tpa inongo pretensiorik gabe jarraitzen dugu kantatzen. Gauza da urte mordo batean agian programatzaileen zerrendetan ez garela egon. Ez dakit modaren arabera izango den, politikaren arabera izango den, baina hori aztertzea ez zait tokatzen. Deitzen gaituztenean eta publikoak etortzen denean, magia sortzen da eta ateratzen da atera behar duenak eta denok joaten gara oso kontent etxera.

**Gurean emango duzun kontzertuan 'Nabil' diskoaren abestiak kantatuko dituzte?**

Izango dira batzuk, baina orain arteko errepertorioa emango dugu. Horietan beti sartzen dira kantu zaharrak eta seguraski sartuko

dira bi kantu berezi horiek ere. Ez gara gehiegi moldatzen modotara edo horrela egiten da eta horrela sunean. Hainbeste urtetako eta hainbeste diskoetan dagoen lan horretatik aukeratzeko errepertorio bat. Denbora pasatu ahala aldatzen joaten da.

**Aurretik izan zara Gurean?**

Izana naiz. Polita da, txikia, gertukoa. Niri hori gustatzen zait, jendea oso gertu izatea. Batzuetan argiak piztea ere gustatzen zait. Gustatzen zait jendea ikusi eta etxeko egongelan bezala abestea.

**Lehen diskoa orain 30 urte atera zuen. Musika ulertzeko modua nola aldatu zaizu?**

Ni ez naiz hainbeste konturatzen eta ez nuke analasi fin bat egingo, baina pentsatzen dut zerbaite ikasiko nuela denbora horretan. Bai kantatzen bai kantuak egiten eta bai kantuak aukeratzeko, sentsibilitatea lantzen... Nik uste dut orain hobeto kantatzen dudala, pentsatzen dut badakidala nor naizen eta horrek beste patxara batean jarritzen zaizu taulatu gainean.

**Gaur hasiko da Beterriko I. Bertsolari Txapelketa**

**Kultura** » Andoainen da lehenengo kanporaketa, Santa Krutz elkarteak; irabazleak Asteasuko finalera pasako dira.

## ERREDAKZIOA

Manuel Larramendi Bazkunak antolatutako Beterriko I. Bertsolari Txapelketari hasiera emango diote gaur, Andoainen. Bertan egingo da lehenengo kanporaketa. Kale Nagusiko Santa Krutz elkarteak izango da bertso-afaria, 20:30ean. Antolatzaileek adierazi dutenez oraindik bada txartelik bertso-afarian parte hartu ahal izateko.

Bertsolariak taldeka jardungo dute lehian. Bi talde lehiatuko dira,

beraz: batetik, Zilarriturri taldea, Ainhoa Agirreazaldegik, Iñaki Apalategik eta Iñigo Izagirik osatua, eta bestetik, Lapurtxulo taldea, Iñaki Gurrutxaga, *Mantxi* eta Beñat Lizaso bertsolariekin. Jon Zaldua izango da gai-emailea.

Lehen kanporaketa honetan irabazle gertatzen den taldea Asteasun egingo den finalera pasako da zuzenean. Afariaren prezioa 20 eurokoa da. Txartelak ondoko lekuetan eros litezke: Larramendi Bazkunaren eta Aiurriren egoitzetan, Santa Kruz elkarteak bertan, Andoingo Ernaitza eta Stop liburutendetan, Villabonan Oigoxo okindegian, eta Asteasun Iturriondo jatetxean. Txartelak telefonoz ere gordearaz litezke, 943 30 07 33 zenbakian, aurretik ordainduz gero.

**Aizkardik ibilaldia antolatu du iganderako**

**Villabona** » Iparla-Gorramendi-Amaiur ibilbidea egingo dute eta izena emateko azken eguna gaur izango da.

## ERREDAKZIOA

Aizkardi mendi elkarteak Iparla-Gorramendi-Amaiur ibilaldia antolatu du igande honetarako, hilak 17. Ibilaldi horretan Eiheraldetik

abiaturako dira eta Iparla eta Gorramendi pasatuko dituzte, Amaiur-reen bukatzeko.

Aurreikusitakoaren arabera, sei ordu eta erdiko denbora irauko du eta 22 kilometro egingo dituzte. Beste bigarren aukera bat ere badago, 15 kilometroko ibilbidea eta lau orduko iraupena izango dituen. Izena emateko azken eguna gaur da. Horretarako 943 69 44 58 zenbakira deitu edo Aizkardiren egoitzara joan behar da.

**Laburrak****Barrikotea egingo dute bihar Artubi elkarteak**

**BEDAIO** » Barrikotea antolatu dute Artubi elkarteak. Bihar izango da eta 20:30ean hasiko da. 20 euro inguru ordaindu beharko da, gastuen arabera. Ekitaldia irekia da, bedaiotar nahiz kanpotarrentzat.

**Ostatuaren berrikeria ospatuko dute bihar**

**HERNIALDE** » Ostatuaren berrikeria ospatuko dute bihar, 12:00ak inguruan hasita. Pintxoak jateko aukera izango dute bertara joaten diren eta eztarria bustitzeko ere izango dute.

**H Hilberriak****ESTHER LARRAÑAGA ZUBIZARRETA**

andrea

Atzo hil zen, Azpeitian, 52 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-  
Garen artean izango zara  
zuk emandakoa  
gugan biziko da beti

Bere anaia: Luis Mari; koinata: Gemma Larrañaga; ilobak: Eider eta Xabi Borda, eta Alex; izeba: Inazia Larrañaga; laguntzaileak: Begoñita Bereziartua; lehungusak, lagunak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko ZAIZPIAK ETA ERDIETAN, Azpeitiko SOREASUKO SEBASTIAN DEUNAREN parrokia elizan, GORPUIA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbidea: Olazoko Amaren Plaza 11-3C

Oharra: Hilbela Azpeitiko Carmona Ehorzketako tanatorioan egingo da.

AZPEITIA  
2008ko otsailaren 15a**ESTHER LARRAÑAGA ZUBIZARRETA**

Ekaitza etorri da astinduz goi ta be naiz ta utzi gaituzun denok atsegabez Esther, gurean zinen txoko baten jabe etzaitugu utziko adonik gabe

AZPEITIA  
2008ko otsailaren 15a

Beobide Aranguren sendiak

Jesus eta Mari Karmen, Josu eta Pilar, Eli eta Juan Mari, Gorka, Nahia, Mikel eta Larraz

## Nafar Jokoen ligaxka bi asteburu barru amaituko da

**Pilota** » Iera Agirre Emakumezkoen Lehenengo Eliteko Diario Vasco Sarian jokatu du etzi, aurrekoan galdu arren.

**NAIARA GARZIA**

Gabonen ondoren hasitako Nafar Jokoen bigarren itzuliko ligaxka amaitzear dago Aurreratik azaldu dutenez, 2 asteburu besterik ez baitira gelditzen finalurrekoak hasteko. Datorren asteburuan jakinen dute, beraz, zeintzu saiklatu diren finalerdietarako.

**Nafar Jokoa, asteburuan**

Asteburu honetan, asteburu bezala, Aurrerako pilotariak Nafarroako beste hainbat herrietako pilotariekin lehiatuko dira. Pilota partida hauetako batzuk (5 zehatz-mehatz) Amazabal Pilotalekuan jokatu dira bihar, beste 5 partida, aldiz, Irurtzunen, Burla-

tan, Iruñean eta Lizarran. «Nafar Jokoen bitartez pilota eskola asko ezagutzeko aukera izaten dugu, eta polita da, beste herri batzuetako pilotariak ezagutzen baitituzu», dio Pakito Sagastibeltzak, Leitzako pilota eskolako arduradunak.

Amazabalen 09:30ean hasiko da lehenengo norgehiagoka, eta Iñaki Saralegi eta Josu Zabaleta Mendillorriko pilotarien aurka ariko dira. Bigarren partidari Aurrerako bi bikotek elkarren aurka jokatu dute, Mikel Erasok eta Oinatz Mariezkurrenak eta Julen Goikoetxeak eta Ander Eskudero. Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Ander Gartziaarena Aralar Mendi eskolako pilotarien aurka lehiatuko dira, Joxerra Aldaregia eta Anartz Olanu Uhartekoaren aurka eta Xabier Jaunarena eta Mikel Hernandorena Burlatako pilotarien aurka (Zugarralde B). Larunbat goiz osoan zehar, beraz, Amazabalen pilota partidak izanen dira.

Eskola honetako beste zenbait pilotarik, ordea, kanpoan jokatu dute: Ibai Azurmendik eta Iker Sagastibeltzak Irurtzunen, Mikel Sagastibeltzak eta Oier Igartuak Burlatan, Aimar Gilek eta Ander Alduntzinek Iruñean eta bi bikotek Lizarran jokatu dute, 16:00etan: Mikel Onsalok eta Xabier Erasok eta Ibai Gilek eta Markel Barriolak. Aurreko asteburuari dagokionez, jokatuak 8 partidetatik 4 irabazi zituzten.

**Emakumezkoen elitekoa**

Iera Agirre leitzarrak Iruñeako Maite Ruizekin batera Evaristi eta Unanuren aurka ariko dira. Emakumezkoen Lehenengo Eliteko Diario Vasco Sarian. Sagastibeltzak azaldu duenez, «lehenengo aldia da elite mailan emakumezkoen pala txapelketa antolatzen dela». Joan den asteburuan 21-30 galdu zuten, eta Agirre lesionatu egin zen. «1. tantoan Iera txonkatila bihurritu zuen».



Leitzako zineman beste 5 film botako dituzte denboraldia amaitu arte. N. GARZIA

## Martxoaren 16an amaituko da aurtengo zinema denboraldia

**Zinema** » Asteburu honetan *La boda de Tuya* eskainiko dute, eta denboraldia amaitu arte beste 4 film botako dituzte.

**N. GARZIA**

Gaur eta ostiralean *La boda de Tuya* izeneko filma botako dute Leitzako zineman, ohiko ordutegian (ostiralean 22:30ean eta igandetan 19:30ean). Honetaz gain, zinemako arduradunek jada 2007-2008ko zinema denboraldia agurtuko duten beste lau filmak ere aukeratu dituzte. Beraz, martxoaren 16an amaituko da aurtengo film denboraldia.

**'La boda de Tuya', gaur**

Wang Quan'an txinatarrak zuzendutako film hau Mongolian kokatuta dago eta istorio errealean batean oinarrituta dago. Tuya izeneko emakume baten istorioa kontatzen du, nola bere bi semeak eta bere senar baliaezina aurrera ateratzen dituen gogor lan eginez.

Egun batean, ordea, istripu bat izaten du eta medikuak hain gogor lan ez egiteko esaten dio. Bere senarrak Tuya sufrizten ikusi nahi ez duenez, beste gizon batekin ezkontzeko gomendatzen dio, baina honek, noski, poliandria onartu beharko du, hau da, Tuyaren betiko gizona ere bere kargu hartu beharko du.

Filmak, profesionalak ez diren aktoreek grabatu zuten arren, 2007. urtean Berlingo Urrezko Hartza saria jaso zuen.

**Azken 4 filmak**

2007-2008ko zinema denboraldia amaiera emateko 4 film hartuz ezberdinak aukeratu dituzte zinemako arduradunek: Patrice Laconte zuzendaria frantsesaren *Mi mejor amigo* (otsailaren 22an eta 24ean), Ang Lee zuzendari taiwandarraren *Deseo, peligro* (otsailaren 29an eta martxoaren 2an), Lucia Puenzo argentinarraren *XXY* (martxoaren 7an eta 9an) eta azkenik Kenneth Branagh irlandarraren *La flauta magica* (martxoaren 14ean eta 16ean).



Nafar Jokoen barruan, 5 partida jokatu dituzte larunbatean Amazabal Pilotalekuan Aurrerako pilotariak. N. GARZIA

## Cantolagua taldearen aurka jokatu du Aurrerak igandean

**Futbola** » Joan den asteburuan zenbait jokalariek lesionatu ondoren, taldea «justu xamar» doala azaldu dute Aurreratik.

**N. GARZIA**

Etzi Aurrerak Zangotzako Cantolaguaren aurka jokatu du. «Taldea oso ona da», dio Unai Olanu Aurrerako jokalariek. «Gainera Zangotzan jende dezente joan ohi

da futbol partidak ikustera eta normalean etxean irabazi egiten dute. «Partida zaila izanen da, gogorra».

Gainera, joan den asteburuko partida dela eta, zenbait jokalariek lesionatu zirenez «taldea justu xamar» doala dio Olanok.

**Joan den asteburuko partida**

Azkeneko partida, Iruña taldearen aurkako 1-0 galdu zuten. «Ez genuen partida ona egin, baina arbitrajea lotsagarria izan zen. Denok umiliatuta amaitu genuen, eraba-

tean faltak kontrapitatu zituen, eta gureak ez».

Gainera, Aurrerako 2 jokalariek ospitalean amaitu zuten. «Iñigo de Karlosi batek buruan ostikoa eman zion eta falta besterik ez zuen pitatu arbitroak. Iker Eizagurre Txokori ukondoko galanta eman zioten, eta ospitalean 5 puntu eman zizkieten arren, arbitroak falta soilik pitatu zuen». Gezurra badirudi ere, arbitroa amaieran bere jokoarekin pozik azaldu zela dio Olanok.

**Gaurko menua**  
dar-dar produkzioak

**TOLOSA**

otsailak  
**15**  
ostirala  
**20:30**

LEIZOR



11°  
6°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATS.	EGUZKIA
BEROENA	11°
HOTZENA	7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldek beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Albiztur.** Agenda 21eko herri baztarrak izango da 20:30ean. Irekia da eta herritarren parte-hartzea garrantzitsua da.

■ **Albiztur.** Otsailaren 23an, Santa Marinako Segoretxe-berri jatetxe-aren egingo den bertso afarirako sarrerak salgai daude, 27 euroren truke. Bertsotan, Zubeldia eta Peñagarikano arituko dira. Sarrerak, jatetxean bertan, Albizturko Udaletxean eta 665 74 63 23ra deituta.

■ **Altzo.** Altzoko Udaletxean ENHA tramitatzeko aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errolda agiria behar dira horretarako.

■ **Tolosa.** Dina Bilbao Bidaia beka irabazi zuen Ibarra eta Belauntzako lagun taldeak ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Kultur Etxean, 20:00etan (*Urte baino lehen* izeneko proiektuarekin irabazi zuten saria: 10 eguneko Alpeetan izan ziren).

### Kirolak

■ **Tolosa.** Bihar eta etzi, Formigalera (Aragoi, Espainia) iraupen eta alpino eskia praktikatzera irteera antolatuta du Oargi mendi elkartek. Izen-ematea 637 830380 zenbakian egin daiteke.

■ **Tolosa.** Hilaren 23 eta 24ean Moncayo mendira irteera antolatuta d Oargi mendi elkartek. Izen-ematea, 637 830380 zenbakian egin daiteke.

■ **Tolosa.** Venta Zumbeltz - Etxabarri irteera antolatuta du Alpino Uzturrek etzirako, igandearrekin, Dulantz (1.239 m.), Larraitza (1.055m.) eta Azantzako Haitza mendiak igoz. Sei orduko ibilaldia da. Izen-ematea, elkartean (943 652789).

### Antzerkiak

■ **Tolosa.** Dar dar produkzioek *Gaurko menua* antzezlana aurkeztuko dute Leidor aretoan 20:30ean. Ane Gabarain eta Lierni Fresnedo aktoreekin.

### Musika

■ **Villabona.** Amaia Zubiria kantariak kontzertua eskainiko du Guerea aretoan 22:30ean. Pascal Gaigne, Javi Area, Aitor Furundarena eta Ritxi Salaberria musikariak izango ditu lagun. Sarrerak aurrez 5 euro herriko tabernetan eta leihatilan, aldiz, 7 euro.

### Erakusketak

■ **Alegia.** Jose Luis Lopez tolosarraren margolanak daude Jubila-

tuen tabernan, asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar. Tolosako eta Donostiako paisaiak ikus daitezke.

■ **Tolosa.** Tomas Hernandezen Mendizabal artista donostiarraren

erakusketa Aranburu Jauregian. Inauerietako kartelen egilea da.

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era, jaiegun eta as-

telehenetan izan ezik. Bihar da azken eguna.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunikuzinik.

# AURTEN KONTUGAZTE ENTZUNENA

ORAIN, 3.000 €<sup>(1)</sup> (UTB %5,06) KONTUGAZTEN SARTZEAGATIK IPOD NANO ZORAGARRI BAT EDO LOGITECH BOZGORAILUAK ZURETZAT.



Biak nahi dituzula? Bada, erraz asko. Orduan **Kontugazte** kontuan **6.000 euro**<sup>(1)</sup> sartu behar dituzu.

**IBILI BIZKOR ETA EGIN ZEURE EKARPENA KUTXAREN EDOZEIN BULEGOTAN EDO KUTXANET BIDEZ<sup>(2)</sup>. ETA GOGORATU: KONTUGAZTEREKIN, ZURE DIRUAK GEHIAGO BALIO DU.**

(1) DIRUIA ALDI BATERAKO GORDAILU BEREZI BATEAN EGONGO DA URTEBETEZ, ESKUDIRUTAN INTERESIK SORTU GABE. ESKAINITZA HAU 2008KO MARTXOAREN 3 ARTE BALIO DUTEN PFEZ ARAUEN MENDE DAGO. (2) BIDE HONETATIK AUKERATURIKO GAUZAK ETXERA BIDALIKO DIRA.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net



Eusko Jaurlaritzak baimendutako publikazioa. 08/02/01 espaldene ze-4una.